


**SANTO DOMINGO KOMENTUA**  
**D MAILA****JOSE ELOSEGI ALKATEA 75****Ramon Martiarena, 1955****Deskripzioa**

Santo Domingo komentua hiribidea baino goragoko kota batean dago, multzoaren basamentu gisako neurri aipagarriko plataforma baten gainean. Murru horrek fatxada itxura ere badu, arkuteria baten ostean ibilgailuentzako sarbide-arrapala bat ere hartzen duela. Obrak, Ramon Martiarenaren kargura, 1955ean hasi eta 1960an amaitu zituzten. Eraikin berri hau komentu zahar baten gainean altxatu zuten, hura eraitsi egin baitzuten erortzeko zorian zegoelako; zaharrari dagokionez, dakigun gauza bakarra da 1909an aldaketa batzuk egin zizkiotela. Antolaketaren eskemak bi zati dauzka, hiru nabeko eliza eta horren ardatzarekiko errektangularra den klaustroa, guzti-guztia hiribidearen paraleloan jarria. Kokapen hori dela eta interesgarria da hiribideranzko albo orientazioa, plataformaren goreneko punturako iritsierarekin eta sarbide bien bereizketarekin, elizarako publikoa baita bata eta klausurako kontrola bestea, kanpai-horma batez hornitutako dorre erantsi batean kokatua berau, orientazio horri jarraikiz konposizioaren erdiko lekua hartzen duela. Elizak sarrera publiko bat dauka, eta beste alderdia klausurarena da. Klausurako ibilbidea, atzeko korridore batean zehar, aldare ondoko eta abside itxurako beheko koru bateraino iristen da, eta baita nabe gaineko goi koruraino ere. Klausuroak dependentzia komunak ditu inguruan beheko oinean; goiko bi solairuak, berriz, gelekina okupatuta daude, baita albo nabeen gainean ere. Eragin klasizistako lengoia historizista berantiar bati jarraikiz altxatu zuten.

**D mailaren berariazko babes araubidea**

- 1- Babesetik kanpo lagatako fatxadako elementu edo alderdiak: ez dago horrelakorik.
- 2- Fatxadako elementu edo alderdi iraunkorrak: multzoko harrizko elementu guztiak, plataforma eta sarbidea barne.
- 3- Esku hartzeko murriztapen partikularrak: ez dago horrelakorik.
- 4- Nahitaezko lehengoratzak: ez dago horrelakorik.